2.– 13. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu egingo da, eta horrela geratuko da:

«*13. artikulua.*– Homologatu gabeko langileen lanaldia.

(...)

13.2.– Urteko lanaldia 1.592 ordutik gorakoa, berariazko ordutegia 12. artikuluan aipatutakoa ez bezalakoa eta urte osoan lanaldi jarraitua duten lanpostuak betetzen dituzten langileek 2001. urtetik aurrera 1592 orduko lanaldia izango dute, eta lanaldi jarraitua izaten segituko dute. Langile horien ordainsaria 57. artikuluan xedaturikoaren araberakoa izango da. Lanaldia lanegutegiaren arabera egokituko da.

3.– 57. artikuluko a) idatz-zatiko lehen paragrafoaren idazketa aldatu egingo da, eta «Mailakako lansariak 11. artikuluan ezartzen den urteko lanaldia, 1.626 ordukoa, ordaintzeko dira» jarri ordez «Mailakako lansariak 11. artikuluan ezartzen den urteko lanaldia, 1.592 ordukoa, ordaintzeko dira» jarriko du.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 19an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

2.– Se modifica el apartado 2 del artículo 13, quedando redactado en los siguientes términos:

«*Artículo 13.*– Jornada del personal no homologado.

(...)

13.2.– El personal que ocupe puestos de trabajo que requieren una jornada superior a 1.592 horas, con un horario específico distinto al contemplado en el artículo 12 y con régimen de jornada continuada durante todo el año, pasa a tener a partir del año 2001 la jornada de 1.592 horas, manteniendo el régimen de jornada continuada. Su retribución se determinará de conformidad con lo establecido en el artículo 57, procediéndose a la distribución de la jornada a través del calendario laboral»

3.– Se modifica la redacción del primer párrafo del apartado a) del artículo 57, sustituyéndose «Las retribuciones por niveles retribuyen la jornada anual de 1.626 horas...» por «Las retribuciones por niveles retribuyen la jornada anual de 1.592 horas......».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

## Zk-5895

267/2000 DEKRETUA, abenduaren 19koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzko Dekretua bigarrenez aldatzen duena.

Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaz baliaturik, zerbitzuen arrazoiengatiko kalteordainei buruzko Dekretuaz hain zuzen, administrazio publiko desberdinetan kalteordain jardunbidea era bateratuan arautzeari ekin zaio. Horretarako, ezarri dira zerbitzuen ondorioz kalteordainak jasotzeko eskubidea funtzionarioei ematen dizkieten baldintzak, eta hauek kobratu behar dituzten diru-zenbatekoak.

## N°-5895

DECRETO 267/2000, de 19 de diciembre, de segunda modificación del Decreto sobre indemnizaciones por razón de servicio.

Mediante Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, se procede a la uniforme regulación del régimen de indemnizaciones por razón de servicio en las distintas administraciones públicas, determinándose las condiciones y cuantías que dan lugar al nacimiento y devengo del derecho de los funcionarios a ser indemnizados por los gastos realizados por razón de servicio.

Alde batetik zerbitzuen ondoriozko kalteordanei buruzkoa den otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua indarrean sartu zenetiko aldiak, eta bestetik kalteordaina jasotzeko eskubidearekin zerikusirik duten kontzeptuen kostua goratzeak ekarri dute sortutako gastua eta honen ordaina gauzatzearen arteko oreka haustea eta aldi berean kalteordainak bere xedea erabat betetzea.

Horregatik, aipatutako Dekretuaren azken erabakia betearaziz, diru-zenbatekoen doikuntzari ekiten zaio arrazoi eta nahikotasun irizpideen arabera, langileek bere zerbitzu-jardueretan egindako gastuei aurre egiteko.Honela, era berean, sortutako gastua eta honen ordainaren arteko oreka berreskuratzen da.

Gainera, 22. artikuluaren 2. eta 3. zenbakiak aldatzen dira eta gehitzen da, ordea, erabaki gehigarri bat, hamabigarrena hain zuzen. Honen xedea da kalteordaina jasotzeko kasuetan sortzen diren zalantzak argitzea. Halaber, 22. artikuluaren 5. zenbakia aldatu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legearen xedapenekin bat etorriz.

Ondorioz, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua entzun eta Aholku Batzorde Juridikoaren onespenarekin, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko abenduaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.–*** Zerbitzuen ondoriozko kalteordanei buruzko Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren 22. artikuluaren 2. zenbakia aldatzen da, honela geratzen delarik:

> «2. Epaimahaikideek, eta epaimahaikideei aholkuak ematen dizkieten langileek edo beroiekin zaingo edo sorospen materialeko zereginetan dihardutenek eskuratuko dituzte bertaratzeen ordainak».

***Bigarren artikulua.–*** Zerbitzuen ondoriozko kalteordanei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren 22. artikuluaren 3. zenbakia aldatzen da honela geratzen delarik:

> «3. Bileretara joateari dagozkion sortzapenak bileren kopuruaren araberakoak izango dira. Bilera kopuru osoa lortzeko kontuan hartuko da prozesu osoaren ordu kopurua eta lortutakoa zati sei izango da emaitza, gainontzeko guztia era proportzionalean konpentsatuko delarik. Dena den, prozesu osoagatik gutxienez bilera bat konpentsatuko da.

El tiempo transcurrido desde la entrada en vigor del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón del servicio, así como el incremento de costes asociados a conceptos que dan derecho a la indemnización ha supuesto una ruptura del equilibrio entre el gasto producido y su efectivo resarcimiento, impidiendo que las indemnizaciones lleguen a cumplir plenamente esta finalidad.

Por ello en cumplimiento de lo dispuesto en la disposición final primera del citado Decreto se procede a la adecuación de las cuantías para satisfacer de manera racional y suficiente los gastos realizados por el personal en el ejercicio de sus funciones, restaurando el equilibrio entre gasto producido y su debido resarcimiento.

Por otro lado se modifican los números 2 y 3 del artículo 22 y se incorpora una disposición adicional duodécima al objeto de clarificar dudas interpretativas surgidas en relación con algunos supuestos indemnizables. Así mismo, se modifica el número 5 del artículo 22 de acuerdo con las disposiciones de la Ley 13/1998, de 29 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En su virtud, oído el Consejo Vasco de la Función Pública, con el visto bueno de la Comisión Jurídica Asesora, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 19 de diciembre de 2000.

DISPONGO:

***Artículo primero.–*** Se modifica el número 2 del artículo 22 del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, que queda redactado en los siguientes términos:

> «2.– Las asistencias se percibirán por los miembros del Tribunal y personal que preste su asesoramiento al mismo o colabore con él en tareas de vigilancia o auxilio material, y su cuantía será la establecida en el Anexo IV de este Decreto».

***Artículo segundo.–*** Se modifica el número 3 del artículo 22 del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, que queda redactado en los siguientes términos:

> «3.– Las asistencias se devengarán por sesiones. Para obtener el número total de sesiones, se computará el número total de horas de todo el proceso y el resultado se dividirá entre seis, compensándose el resto proporcionalmente. En todo caso, la compensación por todo el proceso no podrá ser inferior a una sesión.

Larunbatetan edota jaietan egindako bilerak lehengo idatz-zatian jaso den bezala kalkulatzeko, ordu bakoitzeko ordu eta erdi zenbatuko da.

Guzti horren arabera organo bakoitzeko lehendakariak ezarriko du kide edo laguntzaile bakoitzari dagokion bilera kopuru zehatza».

***Hirugarren artikulua.***– Zerbitzuen ondoriozko kalteordanei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren 22. artikuluaren 5. zenbakia aldatzen da honela geratzen delarik:

«5. HAEEko ordezkariek sortzen dituzten bertaratzeak erakunde horrek ordaindu beharko ditu zuzenean».

***Laugarren artikulua.***– Zerbitzuen ondoriozko kalteordanei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuari xedapen gehigarri bat, hamabigarrena, gehitzen zaio. Xedapen honek honela dio:

«***Hamabigarrena.***– 1.– Dekretu honetatik salbuetsirik geratuko da, berariazko araudiari jarraituz, ondoko zerrenda honetako jardueretan Administrazioarekin zerbitzu harremanik ez duten pertsona fisikoen parte hartzea:

a) Arlo publikoko jarduerak, bertako langileen heziketa edo hobekuntzarako ikastaro gisa bideratuak.

b) Mintegiak, elkarrizketak, mahai-inguruak, hitzaldiak, lankidetzak edo beste edozein antzeko jarduerarik.

c) Kide anitzeko organoak, dirulaguntzen izapideetaz arduratzen direnak eta, zientzi, arte edota kulturazko intereseko ekimenei diru-laguntzak emateko epaimahaiak.

2.– Lehengo idatz-zatian aipatutako kontratuak egiaztatzeko nahikoa izango da eskumena duen organoak izendatze hutsa. Organo horrek ere adieraziko du prezioa.

3.– Arau multzo honen 21. artikuluan aipatzen diren kide anitzeko organoen bileretara joatearen diru-ordaina, betiere bertara doazenek ez baldin badute Administrazioarekiko zerbitzu-harremanik, 21. artikulu horretan jasotzen denaren arabera arautuko da».

AZKEN XEDAPENAK

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 19an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Las horas correspondientes a las sesiones celebradas en sábado o en día festivo se computarán, a los efectos del párrafo anterior, como hora y media.

De acuerdo con todo ello, el presidente de cada órgano fijará el número concreto de sesiones que correspondan a cada uno de los miembros o colaboradores».

***Artículo tercero.***– Se modifica el número 5 del artículo 22 del Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, que queda redactado en los siguientes términos:

«5. Las asistencias que se devenguen por los representantes del IVAP serán directamente satisfechas por dicho Instituto».

***Artículo cuarto.***– Se añade una disposición adicional duodécima al Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, con la siguiente redacción:

«***Duodécima.***– 1.– Está excluida del ámbito de aplicación del presente Decreto, y se regirá por su normativa específica, la participación de personas físicas sin relación de servicio con la Administración en las siguientes actividades:

a) actividades docentes en centros del sector público desarrolladas en forma de cursos de formación o perfeccionamiento del personal propio.

b) seminarios, coloquios, mesas redondas, conferencias, colaboraciones o cualquier otro tipo similar de actividad.

c) órganos colegiados encargados de la tramitación de subvenciones y jurados para la concesión de premios para actividades de interés social, científico, artístico o cultural.

2.– Para acreditar los contratos mencionados en el apartado anterior, bastará la designación o nombramiento del órgano competente, que señalará también el precio.

3.– La compensación por la asistencia de personal sin relación de servicio con la Administración a las reuniones de los Órganos Colegiados a los que se refiere el artículo 21 de esta norma se regulará por lo dispuesto en dicho precepto».

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de diciembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

I. ERANSKINA

Hazkurri dieta: 6000 PTA.

II. ERANSKINA

Kalteordaina, norbere ibilgailua erabiltzeagatik : 40 PTA/km.

Kalteordaina, norbere motozikleta erabiltzeagatik : 22 PTA/km

III. ERANSKINA

Tokiz aldatzeagatiko kalteordaina: 75.000 PTA.

IV. ERANSKINA

Langileak hautatzeko prozesuaren ardura duten epaimahaietan parte hartzeko bertaratzea:

| | |
|---|---|
| Lehendakaria eta idazkaria | 10.000 PTA. |
| Kidea eta laguntzailea | 9.000 PTA. |

ANEXO I

Dieta por manutención: 6000 PTA.

ANEXO II

Indemnización por uso de vehículo particular: 40 PTA./km.

Indemnización por uso de motocicleta particular: 22 PTA./km.

ANEXO III

Indemnización por traslado de residencia: 75.000 PTA.

ANEXO IV

Asistencias por participación en Tribunales encargados de juzgar procesos selectivos de personal:

| | |
|---|---|
| Presidente y secretario | 10.000 PTA. |
| Vocal y colaborador | 9.000 PTA. |

**OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**
**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

**Zk-5896**

268/2000 DEKRETUA, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2000. urteko ekitaldiko aurrekontuko 9111 programan (Foru Aldundien Ekarpenak) diru-sarrerak lortu direla-eta, 5211 programan (Plana: Euskadi Informazio Gizartean) 200.000.000 pezetako kreditua (1.202.024,21 euro) habilitatzen duena.

2000ko ekarpen orokor eta berezien zenbatekoak hasieran uste baino handiagoak izan dira. Ekitaldi honetan, zerga itunduengatiko bilketari dagokionez, foru aldundien aurreikuspenak handiagoak izan direlako gertatu da hori.

Horregatik, 200.000.000 pezetako kreditua (1.202.024,21 euro) habilitatzen da dekretu honen bidez, Euskadiko Aurrekontu Errejimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**
**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL**

**N°-5896**

DECRETO 268/2000, de 19 de diciembre, por el que se habilitan créditos en el programa 5211 Plan Euskadi en la Sociedad de la Información, por ingresos obtenidos en el programa 9111 Aportaciones de las Diputaciones Forales, del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2000, por importe200.000.000 de pesetas (1.202.024,21 euros).

Los ingresos correspondientes a las aportaciones generales y específicas sobrepasan a los inicialmente previstos para el ejercicio 2000. Ello es debido a la mayor previsión de recaudación en las Diputaciones Forales por Tributos concertados en el presente ejercicio.

Por tal motivo se procede a la habilitación de 200.000.000 de pesetas (1.202.024,21 euros), de conformidad con lo establecido en los artículos 82 y 83 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de setiembre, por el